

## GAKO EKONOMIKOAK

- Ekonomiaren suspertzea agerikoa da, nahiz eta, merkatuetan Delta bariantek eragindako kutsaduren zenbateko haunditzeak eta Txinako hainbat sektorearen gaineko arautze neurriek eragindako beldurra nabarmen dan.
- Gorabehera handia egon da burtsetan itxiera mistoak eraginez.
- Zorraren interesak jaitsi dira, oro har. Kredituen merkatuan egonkortasuna nagusi.
- Euroaren balioaren igoera dolarrarekiko, petrolioak positiboan itxi du eta urreak % 2tik gora igo du bere balioa.

## MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Makroekonomia mailan, uztailak aurreko hileko joerari eutsi dio, ekonomiaren hobekuntza orokorrak sendotasun handiagoa hartzen doan ingurunean, nahiz eta leku guztietan berdinean ez, inflazioaren presioek eta koronabirusaren bariante berrien hedapenak izan dira nagusi hilabete honetako kezken artean. Kezka horiei Txinako arauak gehitu dira, hango gobernuak hezkuntza sektorean aritzen diren irabazi asmoko enpresa pribatuen jarduera eta inbertsioa mugatzea erabaki baitu, eta horrek sektorearen hazkuntzan eragin zuzena izan baitu. Ondorioz, araudia zorrotze hori azken urteotan garapen nabarmena izan duten beste sektore batzuetara islatzeko beldurra areagotu du, teknologikoa edo osasuna bereziki. Beldur horiek ikusita, Txinak berriz ere adierazi du merkatura atzerriko inbertitzaileen sarrera areagotzeko neurriak aplikatzeko esfortzuak egiten jarraituko dutela, eta argitaratutako enpresen emaitzei eta Banku Zentralen tonu nasaiari gehituta, merkatuen urduritasuna lasaitzeko gai izan dira. Urteko bigarren hiruhileko enpresa emaitzen argitalpenari dagokionez, hazkuntza handia erakusten dute datuek eta, ondorioz, jardueraren suspertzea egia dela esan dezakegu. Bestetik, banku zentralak, haien hileko bileretan, ekonomiaren suspertze prozesuan laguntzen jarraituko dutela errepikatu dute. BCEak, aurreikuspenen ildotik, bere politika monetarioa uztailaren hasieran aurkeztutako estrategia berriaren arabera doitu zuen, zeinak inflazioa hobeto kontrolatu, eta tasak denbora luzeagoz baxu izateak lagunduko dio horri. Bestetik, Fed-ak tipoen mailari eutsi zien, nahiz eta aktiboen erosketak murrizteko prestatzen ari zen. Horrek ezustekoa ekarri zuen eta Erreserba Federalaren Presidentek jakinarazpen ofiziala nabartu behar izatea eragin zuen. Powellek pizgarriak kentzen hasteko beharrezkoa den "hobekuntza nabarmena" lortu ez dela nabarmendu du, nahiz eta aurrerapausoak eman diren. Hilean zehar ezagutu diren macro datuek jarduerak, zerbitzuek eta enpleguak hobetu dutela bermatzen dute.

## ERRENTA ALDAKORRA

Uztailan hegazkortasunaren areagotzea izan da nagusi, delta bariantearen kutsatzeak igo direla eta osasun arloan dagoen kezka eta horrek munduko ekonomian eragindako efektuen ondorioz, zeinei Txinatik datozen berriak gehitu zaizkien. Merkatuetan ezegonkortasunaren fokua izan da Asiako erraldoia, zeinak hila modu ezberdinean itxi duen indize garatuetan eta emergenteetan. Asiako herrialdeko arautze ekintzek eroriko handiak eragin zituzten Txinako burtsan, eta munduko gainerako burtsak ere eraman zituen aurretik. Hala ere, Amerikako burtsak eta Europakoak uztaila bermeeekin ixtea lortu zuten, enpresa emaitzak argitaratzean oinarrituta, eta banku zentralen tonu lasiarekin. Wall Streeten, Dow Jones indizeak % 1,3 igo zuen, S&P 500 indizeak % 2,3 eta Nasdaq indizeak, aldiz, % 2,8. Bestetik, Eurostoxx 50 indizeak % 0,62ko igoera izan du. Japoniar burtsa izan zen salbuespena, zeinak % 5 galdu zuen, emergenteen indizearen ildo berean, zeinak guztira % 7ko erorikoa gainditu zuen, biak Txinako merkatuaren joera okerrak eraginda.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.675,70	EUR	%-1,65	%7,46
EUROSTOXX-50	EUROPA	4.089,30	EUR	%0,62	%15,11
S&P-500	AEB	4.395,26	USD	%2,27	%17,02
DOW JONES	AEB	34.935,47	USD	%1,25	%14,14
NASDAQ 100	AEB	14.959,90	USD	%2,78	%16,07
NIKKEI-225	JAPONIA	27.283,59	JPY	%-5,24	%-0,59
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.277,80	USD	%-7,04	%-1,04
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	3.069,25	EUR	%1,72	%14,10

Iturria: Bloomberg

## ERRENTA FINKOA

Txinako araudien inguruko jarduerak eragindako kezken eta Delta bariantearen kutsadurek mundu osoan gora egitearen ondorioz, Atlantikoaren bi aldeetan errenta finkoak erosi dira, eta horrek bonu alemanaren eta hamar urterako amerikararen errentagarritasunek atzera pauso handia eman dute. Hortaz, AEBko 10 urterako zorraren interesak % 1,22rekin itxi zuen uztaila, eta Alemaniako zorrak, aldiz, % 0,46rekin. Espainiako hamar urterako tasari dagokionez, haren errentagarritasuna % 0,27ra arte lasaitu zen. Azkenik, errenta finko pribatuaren diferentziales nahiko egonkor jarraitu dute.

INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2021ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,54	0,00	0,00
	6 HIL.	-0,52	0,00	0,00
	12 HIL.	-0,50	0,00	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,76	-0,10	-0,06
	5 URTE	-0,74	-0,15	0,00
	10 URTE	-0,46	-0,25	0,11
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,58	-0,08	0,04
	5 URTE	-0,39	-0,15	0,00
	10 URTE	0,27	-0,14	0,22

Iturria: Bloomberg

## DIBISAK ETA LEHENGAIK

Dibisen merkatuan, dolarren eta euroaren arteko gurutzatzeak moneta bakarraren igoera txiki batekin itxi du hila. Lehengaietan, hilaren lehenengo zatian, gordinaren etorkizuneko eskaeraren inguruko kezka nagusitu zen, kontuan izanik gainera, OPEP+ak eskaintza areagotzea adostu zuela eta Estatu Batuetako petrolioaren inbertarioetan ezusteko metatzea jakinarazi zela. Halere, txertoei esker hautematen ari den mugikortasunaren hobekuntzak, nahiz eta kasu berriek kezkatu, gordinaren prezioa igotzea eragin zuten, eta gordinaren prezioa 75\$/upel-era iritsi da berriz ere. Urreari dagokionez, % 2,49 igo zen, 1.814,49\$/ontza-ra arte.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg